

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure akademiak hainbat baliabide beharko ditu.

Lehenik eta behin baliabide materialarekin hasiko gara. Gure enpresa akademia bat denez gero, bada eskola batean behar dugunaren antzeko baliabideak behar ditugu.

- Eserlekuak
- Mahaiak
- Ordenagailu bat
- Arbel bat
- Arbelerako errotulagailuak
- Orri zuriak
- Inprimagailu bat
- Proiektore bat
- Apalak
- Idazteko beharrezko materiala

Baliabide ekonomikoen aldetik, gure enpresako 5 partaideok 2000€-ko kapital soziala edukiko du. Kontuan edukita hasieran Orixe BHI-ko ikastetxeko gela bat erabiltzea edukiko dugula ez da beharrezkoa izango diru kantitate handi bat. Aurrerago, enpresak ondo funtzionatuz gero, ikastetxetik kanpo lokal bat hartuko genuke eta hori ordaintzeko diru kopuru handiago bat jarri beharko genuke, instalazio guztia egin beharko litzateke eta.

Giza baliabideen aldetik irakasleak gu izango garenez gero ez dugu pertsona gehiago beharko gure akademian.

- Hizkuntzak:** Nere eta Irati arduratuko dira hizkuntzak irakasteaz, biek erakusten baitute hizkuntzetarako erraztasun handia.
- Zientziak:** Eñaut eta Jon arduratuko dira zientzietan oinarritutako arloak irakasteaz, biek zenbakiekiko erraztasuna erakusten baitute.
- Laguntza bereziak:** Nahikari arduratuko da laguntza bereziak emateaz, besteekiko ulermen maila altua eta pazientzia handikoa baita.